

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Stock azoka, bi egunez

Beste urte batez, udazken-neguko denboraldia eta merkeladiei bukaera emateko, Stock azoka antolatu du Berriak merkatarien elkarteak aste honetarako. Hernaniko 13 dendek ostegun eta ostiralean jarriko dituzte postuak Plaza Berrin. ||

■ ASTIGARRAGA KZGUNEA

Dinamizatzailea, gaur

Dinamizatzailearen bisita jaso du gaur Astigarragako KZguneak. Arratsaldeko 16:00-etatik 17:45etara egongo da bertan, zalantzak argitzeako. ||

■ ASTIGARRAGA PRESOKA

Joseba Barandiaran plazan, gaur ere

Astelehenero egun ohi duten bezala, kontzentrazioa dute gaur Astigarragako euskal presoen lagunek, iluntzeko 20:00etan hasita, Joseba Barandiaran plazan. ||

■ HERNANI LIBURUTEGIA

Solasaldia, bihar

Hileroko zitari jarraituz, literatur solasaldietarako zitak izango dira datozen egunotan. Bihar, euskerazko saioa egingo dute, Ane Mayozen eskutik. John Steinbeken *Perla* liburua aztertuko dute. 19:30etan izango da, liburutegian. Gaztelaniazko saioa, aldiz, etzi izango da. ||

■ HERNANI UDALA

Ezohiko Tokiko Gobernua, gaur

Tokiko Gobernuak ezohiko Batzordea izango du gaur, goizeko 09:00etan, alkatetzan. Puntu bakarra jorratuko dute: Atsegindegiko estalkia egokitzeko proiektuaren pleguak. ||

■ HERNANI GOIZ EGUZKI

Bazkideei, kuota

Goiz Eguzki jubilatuen etxeak beren bazkideei jakinarazi nahi die 2019 urteko kuota kobratzen hasiak direla. ||

■ HERNANI GURE ESKU DAGO

Elkarretaratzea bihar, aro berriaren aurretik

Kataluniari elkartasuna adierazteko jarri dute biharko zita; arratsaldeko 19:00etan izango da, Plaza Berrin. Ostiralean, hitzaldia eskainiko du Francesc Matas kataluniarrak, 19:00etan, Biterin.

HERRI galdeketen aroari bukaera eman, eta aro berriari ekingo diola iragarri zuen larunbatean Gure Esku Dagok; horren berri, ordea, ez dute martxoaren 31ra arte emango. Ordura arte, Kataluniari elkartasuna adierazteko jarduerak egingo dituzte, baita Hernanin ere.

Biharko antolatu dute aurrenekoa. Elkarretaratzea deitu dute *Elkartasuna aterpe. Konponbidea. Democracia. Llibertat* lelopean; Plaza Berrin izango da, arratsaldeko 19:00-etan.

Solasaldia, ostiralean
Baina ez da aste honetako

ekintza bakarra izango. Ostiralerako solasaldia antolatu du Hernaniko Gure Esku Dagok Francesc Matas Sallaren eskutik, *El juicio, un hito para la libre decisión y la soberanía* izenburupean. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Biterin.

Asociación Acuerdo de Esquerra por la República Cata-

lanako kidea da Matas, eta bigarrenez izango da Hernanin.

Igandean, Donostiara

Donostian jarri dute zita igandean; Kataluniari elkartasuna helarazteko izango den manifestazioan. 12:00etan abiatuko da, Groseko Katalunia plazatik. ||

■ HERNANI DONOSTIALDEKO OKUPAZIO BULEGOA

«Bi pertsona eta euren txakurrak kalean geratu dira»

Pasa den otsailaren 6an pasatakoa salatu zuen Donostialdeko Okupazio Bulegoak Tilo setan egindako kontzentrazioan: «bi bizilagun desalojatu zituen Urkilla S.L. promotorak».

DONOSTIALDEKO Okupazio Bulegoak deituta, kontzentrazioa burutu zuten herenegun Tilo setan, pasa den asteazkenean, otsailaren 6an gertatutakoa salatzen: «Hernaniko bi bizilagun desalojatu zituen Urkilla S.L. promotorak. Desalojo honetan, promotoraz gain Hernaniko Bake Epaitegiak, Ertzaintzak eta Udaltzaingoa parte hartu zuten».

Azaldu dutenez, «desalojoa abixurik gabe eman zen, eta inolako agindurik erakutsi gabe». Poliziaren jarrera «harroa» ere kritikatu dute.

«Udalak ezer gutxi egin dezakeela dio»

Gertatutakoaren aurrean, diote, «Kaleratzerik gabeko herria» den Hernaniko Udalak ezer gutxi egin dezakeela dio, desalojo bat delako, eta ez etxegabetez bat». «Hernanin pisu bat



Tilo setan egin zuten kontzentrazioa herenegun, gertatutakoa salatzen.

alokatze ohiko laguntzak eskaini dizkie, «denok ezagutzen dugun arren Hernanin dagoen etxebizitza arazoa».

Okupazioaren bidea, zilegi
Gertatutakoarekin, «bi pertso-

na eta euren txakurrak kalean geratu dira», salatu du Okupazio Bulegoak; baita «desalojoa, jokabide irregularrak, honen biolentzia eta erakunde hostasuna» ere.

«Berriro ere, hamarnaka etxebizitzaren jabe diren espe-

kulatzaileek herritarren duintasunak baino pisu gehiago du. Etxe huts bat gehiago dago, eta bi pertsona gehiago kalean, diote kezka.

Eta aldarrikatu dute: «zilegi da okupazioaren bidea etxebizitza izateko». ||

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz
ASEGURUAK

- bizira
- istripuak
- ibilgailuak
- etxeak
- komertzioak
- enpresak
- arduraz zibila
- finantz aseguruak
- inbertsioak

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

AYTEN - ETXE
TABERNA

Larramendi, 15
943 55 00 46

